



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **ERRETORE ETXKO BEHE OINAN DAGOEN UDAL ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN ESLEITZEKO OINARRIAK**

### **1.-OINARRIEN HELBURUA**

Oinarri hauen helburua da Alkizako udalaren jabetzakoa den Erretore etxeko behe oinean kokaturik dagoen etxebizitza adjudikazioarako baldintzak ezartzea.

### **2.-EZAUGARRIAK**

Erretore etxeko behe oinean kokaturik dagoen udal etxebizitzak ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Sukalde eta sala bateratua
- Bi logela
- Komun bat
- Atondoa

### **3.-ESKATZAILEAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Etxebizitza honen onuradun izateko ondoko baldintza bete beharko du eskatzaileak:

- 1) Etxebizitzarik eza: Aipaturiko apartamentua errentamenduan eskuratu ahal izateko, bizikidetz-unitateko edozein kidek ezin izango du inolako etxebizitzarik izan jabetzan, azalera-eskubidean edo usufruktuan, oinarri hauek onartu baino bi urte lehenagoko epealdian.

### **4.-SALBUESPENAK**

Aurreko atalean ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez dutela egiaztatu ondoren salbuetsita geratu daitezkeen pertsonak edo elkarbizitza unitateak ez ezik, salbuetsita geratuko dira, halaber, Alkizako Udaletxearekin edonolako zorrak dituztenak.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **5.-KONTRATUAREN IRAUPENA**

Errenta kontratua urtebetekoa izango da, errentamendua dokumentu administratiboan formalizatzen den egunetik kontatuta.

## **6.- ERRENTA**

Hileko alokairua 425,00 €-koa (Laurehun eta hogeita bost euro) izango da. Argindarra, gasa, ura eta zaborraren gastuak maizterren kontura izango direlarik.

## **7.-ALOKATZEKO BALDINTZAK**

Maizterra etxebizitza okupatzera behartuta dago eta bertan erroldatu beharko du etxebizitza bere eskuetara ipini eta hilabeteko epean. Berau ohiko egoitza iraunkor bezala erabiltzera behartuta dago; ezin izango du etxe bizitza hutsik eduki edota baimenduta ez dauden beste erabileretarako hartu, ezta beste inori alokatu. Etxebizitza okupatu beharra ez betetzea, errentamendu kontratua deuseztatzeko arrazoitzat joko da.

Errentariak berme bat ezarri beharko du, hileroko baten zenbatekoaren baliokoa. Kontratua ezeztatzearen ondorioz errentariak giltzak errentatzaileari itzultzen dizkion egunaren hurrengo hilabetearen barruan itzuliko da kopuru hori.

Udalak etxebizitzan sartzeko eskubidea izango du, aldizka kontserbazio eta bizigarritasun baldintzak berrikusi ahal izateko.

Horretarako, aldez aurretik abisatu beharko die maizterrei, ikuskapenaren eguna eta ordua zehaztuz.

Maizterrek ordaindu beharko dituzte errentan emandako etxebizitzak dituzten kontsumo gastu guztiak, alegia, elektrizitatea, gasa, ur hornidura eta zabor gastuak, oro har, etxebizitza bakoitzari dagokionez bereiz daitezkeen guztiak.

## **8. ESKABIDEAK ETA ADJUDIKAZIOA**

Alkizako Udalak oinarriak onartu ostean, espedientearen hasiera eta ondoriozko deialdia jendaurrean jarriko ditu oinarriak web orrian argitaratuaz.

### **8.1. Esleipenean parte hartzeko eskaera.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Esleipenean parte hartzeko interesa duen ororen betebeharra izango da:

a) Eskabidea aurkeztea, erantsitako ereduaren arabera.

Eskabidearekin batera, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

b) Pertsona edo bizikidetz-unitateko eskabide bakarra onartuko da, eta pertsona bera ezin izango da egon bizikidetz-unitate batean baino gehiagotan aldi berean. Kide batetik gorako bizikidetz-unitateei dagokienez, eskabidean kide guztien datuak eta horiei buruzko dagokion informazioa jaso beharko dira, oinarri hauen arabera.

## 8.2. Epea.

Parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da. Epe hau, oinarri hauek Alkizako web gunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasiko da. Epea jaiegunean edo igandean amaitzen bada, hurrengo laneguna hartuko da azken egun gisa. Eskaerak Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira. Epea azken laneguneko 13:00etan amaituko da.

## 9. ADJUDIKAZIOA

Esleipena egiteko, hauek hartuko dira kontuan:

-Alkizako herrian edo eskualdean 1 urte baino gehiago erroldatua egotea edo bertan jaio eta gutxienez 10 urte bizi izana: 25 puntu

-Adina:

- 18-40 urte: 25 puntu
- 41-65 urte: 10 puntu
- 65 urte baino gehiago: 5 puntu
- 

-Gizarte egoera zaurgarrian egotea: 25 puntu

Puntuaketa altuena lortzen duenari esleituko zaio. Zerrenda bat prestatuko da beste guztien artean, puntuaketaren arabera.

Baremoaren emaitza Alkatearen dekretu bidez onartuko da eta Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, nahi izanez gero, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian.

## **10. ETXEBIZITZAREN ESLEIPENDUNEN ZERRENDA**

Etxebizitzaren esleipendunen zerrenda udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jarriko da erakusgai.

## **11.ERREKURTSOAK**

Interesdunek zerrenda horiek inpugnatu ahalko dituzte honako hauek aurkeztuz:

Aukerako berraztertze errekurtsoa edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

## **12.KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

Jarraian adjudikazioak formalizatuko dira dagozkien errentarako kontratuen bitartez.

Aukeratutakoek, bere aldeko adjudikazioa jakinarazten denetik kontaktzen hasi eta gehienez hamar egun naturalen epean adjudikazioa formalki onartu beharko dute eta adierazten den epealdian kontratua formalizatzerara konprometitu.

## **13.BALDINTZAK EZ BETETZEA**

Oinarri hauetan jasotako baldintzetako edozein ez betetzeak eta aztertuko diren zirkunstantziei buruzko datuen faltasutasunak, kontratuaren deuseztapena sortuko du eta, ondorioz, zerrendan agertzen diren eskatzaileen artean etxebizitza berriro adjudikatzerara eramango du.

## **14.BEHIN BETIKO ESLEIPENAREN ONDOKO BETEBEHARRAK**

Etxebizitza hauen esleipendunek errentamendu-kontratua izenpetzeko formalitateak bete behar dituzte. Baldin eta esleipenduna ez bada kontratua izenpetzeko siora azaldu eta zergatia justifikatu ez badu, esleipenari uko egitetzat hartuko da; hori horrela, zerrendan hurrena dagoen pertsonari edo bizikidetz-unitateari emango zaio aukera, aurreko puntuan adierazitako salbuespen berarekin.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Alokairuzko udaletxe bizitzak uztea eta beharrezko baimena. Alokairuzko udal etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabili beharko dute esleipendunek. Esleitutako alokairuzko udal etxebizitzak ezin lagako dira ez errentamenduan ez prekarioan, non eta horretarako berariazko baimenik ez duen eman administrazio jarduleak, kasu honetan Alkizako Udalak.

Halaber, adierazitako dokumentu horietan honako betebeharrak haur agertuko da: Maizterrek Alkizako Udaleko administrazioaren ikuskaritza zerbitzuei lagundu beharko diete, baldin eta hala eskatu bazaie, udal ikuskaritzak bizileku-betebeharrak zenbateraino betetzen den egiaztatze eskatzen dituen dokumentuak emanez.

## **15. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Oinarri hauetan prestakuntza eta kontratuen esleipenean jatorria duten arazo edo auzi guztiak ebazteko jurisdikzio eskuduna administrazioarekiko auzietakoa izango da.

Oinarri hauen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean berau Alkizako web orrian argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, edo Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko Legeak ezartzen duen moduan eta epean.

## **16. DATUEN BABESA**

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten da bai ekarritako datuak, bai lortzeko baimentzen direnak, Udala titular deneko fitxategietan bilduko direla, behar den tratamendua emateko eta oinarri hauetan ezarritako helburuarekin.

Halaber, jakinarazten da eskabide orria aurkezteak baimena ematen diola Alkizako udalari eskatzaileen identifikazio-datuak iragarki taulan eta web orrian argitaratzeko, honako hauek barne direla: Eskatzaileen identifikazio-datuak, bizikidetzaren unitatearen osaera, zein zerrenda eta kupotan parte hartzen duten eta, hala badagokio, baztertu izanaren arrazoiak.

Alkizan, 2021eko urriaren 25ean